

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

221/2019 Foru Agindua, abuztuaren 30koa, Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzen duena Gasteizko HAPOko Armentia 4 egikaritze unitateko hitzarmen batzarrean izandako aldaketa, hain zuzen, entitate horren helbide aldaketa

Aurrekariak

Lehenengoa. Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2019ko uztailaren 26ko sarrera data duen idazkiaren bidez, Gasteizko HAPOko Armentia 4 egikaritze unitateko hitzarmen batzarreko idazkariak egindako egiaztagiria bidali zuen, Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba dezan. Halaber, jakinarazi du batzarren helbidea aldatu dela Ramón y Cajal kaleko 3 zenbakiko beheko solairura, 2019ko uztailaren 16an egindako batzarreko saioan aho batez hartu zen erabakiaren arabera.

Bigarrena. Armentia 4 egikaritze unitateko hitzarmen batzarra Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatu zen, Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren irailaren 12ko 64/2011 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat etorriz.

Oinarri Juridikoak

Lehenengoa. Abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuak, zeinaren bidez hirigintza kudeatzeko arautegia onetsi baitzen, bere 164. artikuluan xedatzen du ezen, konpentsazio batzarretan gertatzen diren gorabeherak jakinaraziko zaizkiola hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari, diharduen administrazioaren bitartez.

Gasteizko Udaleko jarduneko Hirigintzako zuzendari nagusiaren eginbidea jakinarazten da, non jasotzen den Armentia 4 egikaritze unitateko hitzarmen batzarreko buruaren 2019ko uztailaren 17ko idazkia aurkeztu dela, udalari eskatzeko entitatearen helbide aldaketaren ziurtagiria bidal dezala Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroa, bertan inskriba dezan. Haren kopia konpultsatua ere aurkeztu zuen.

Bigarrena. Aplikagarria da Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa (Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroa sortu eta arautzen du).

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketa Erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 17. sektoreko (Hegoaldeko San Prudentzio handitzea) itun batzarreko zuzendaritza organoan egindako aldaketak Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzeko agintzea. Sektore hori Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren zati da.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 30a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO